

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**9/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena. honen bidez, Arabako zerga araudira egokitzen dira ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergan, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan egin diren hainbat aldaketa**

Arabako Biltzar Nagusiek 2015eko martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

9/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena. honen bidez, Arabako zerga araudira egokitzen dira ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergan, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan egin diren hainbat aldaketa

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua. Honen bidez, Arabako zerga araudira egokitzen dira ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergan, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan egin diren hainbat aldaketa.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Biltzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak, Batzorde Iraunkor gisa eratuta, baliozkotze akordioa hartuta eta 1984eko abenduaren 20ko Arabako Biltzar Nagusien Ihardunbideko Araudiko Foru Araua garatzeko egin zen 1988ko urriaren 21eko Lehendakariaren ebazpenaren 6. puntuaren arabera, (1988ko urriaren 26ko ALHAO 120 zbk.) bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko Foru Araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da 2/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua. Honen bidez, Arabako zerga araudira egokitzen dira ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergan, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan egin diren hainbat aldaketa.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 25a

*Lehendakaria*

*JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA*